

## Martxelina Lopetegi Olaiz



**Udalerria:** Oiartzun (Gipuzkoa)

**Jaiotze-data:** 1864-01-01

**Heriotza data:** 1930-01-01

**Lanbidea:** Bertsolaria

Oiartzungo Ergoien auzoko Galtzareta baserriko alaba zen eta bertsotan trebea. 1907an, 43 urte zituela, Juan Kruz Irastortzarekin Zabale baserrira ezkondu zen. Ezkondu ondorengo bertsorik edo bertso jardunik ez da jaso.

Martxelina bertsolaria zen, nahiz eta garai haietan emakume izanagatik arazoa besterik ez izan. Aita Zavalak berari buruz gogoratutakoa eta bertso gutxi batzuk jaso ahal izan zituen: Erromerietan eta bileretan bertsolariak omen izaten zirenean Martxelina harengana hurreratu eta sarritan beraiekin bertsotan lotzen omen zen, batzuetan entzuten zegoen lekutik eta beste batzuetan bertsolariengana hurbilduta. Martxelinaren lau ahizpek eta lagunek ez omen zuten gustuko hau eta errietan egiten omen zien, eta beragandik alde egin, baina hura bertsolaria izanik, ezin gelditu. Jaietan Galtzarretara inor laguntzera joandakoekin ere bertsotan aritzen omen zen, eta edozein momentutan erantzuna ere bertsotan ematen zuela Martxelinak. Bizia eta ausarta zela edozein gizonekin bertsotan aritzeko, eta gizasemeen moduko ahots altua zuela.

Oiartzungo "Hau leku aitorra" lanean jasota dagoen bezala, Laxaro eta Joxe Miel Eskudero Lekuonaren kontraerari jarraituaz, Artikutzan urtero bertsolari txapelketa egiten zen San Agustin jaietan, abuztuan. Urte batean, Martxelina eta Txirrita aritu ziren, eta bertso ezagun hauek kantatu zituzten, jarritako gaiari erantzunez. Urte horretan, bi bertso horien ondoren saria Martxelinari eman zioten (doinuak aipatutako liburuan bertan aurki daitezke):

--Txirritak:

Aditu bihaituzu

nere abisuak

hoyek izango dira

gauza prezisuak  
jakiñaren gañian  
jarri gurasuak  
bestela ez du baliyo  
nere desiuak.

--Martxelinak erantzun:

Aitakiñ eta amakiñ  
konpontzen naiz ondo  
haitaz eskusarikan  
jartzerik ez dago;  
jakiñaren gañian  
dirade lenago  
libertadia hartua  
aspaldiyan nago.

“Hau leku aittora” lan horretan ere jasota dago Martxelinak hurrengo urtean Artikutzan Txirritari kantatutako bertso ezezaguna jasota dago, neurriarekin gorabehera askorekin:

Aspalditxuan dabilkit  
gauza bat goguaz  
edadian 'e bastate  
aurrera baiguaz  
biyek ezkondu ta biziko gera  
txit modu kuriyosuz  
zuk bersuak atera ta nik  
kanta-paperak salduaz.

Eta Txirritak Martxelinari bota omen zion bertsoa ezagunagoa da:

Martzelinatxo deitzen diote,  
Galtzaretako alaba,  
zere denboran egiña zera  
zeinbait kanta ta algara,  
kantak aztuta bizi biazu  
nekin ezkontzen bazera.

Eta aldaera hau:

Martzelinatxo du izena,  
Galtzaretako alabak;

begira dagon jendiak ere  
esango dute: Ala da!  
Batziek parra egingo dute,  
bestiak berriz algara,  
kantak aztuta biziko zera  
nekin ezkontzen bazera.

Lexoti bertsolariak ere Oiartzungo Galtzarretako neskatxa batekin (ustez Martxelina) maiteminduta zegoen amerikano baten bertsoak ere gogoratzen zituen:

--Amerikanoak:

Zure ait'eta amak eta nik  
itzez tratatu genduan:  
al baldin bazan esposatzeko  
biyok aurtengo neguan;  
oraintxen laixter esan beazu  
zer dadukazun goguan;  
bazenakizu ni zuretzako  
zer gauza ona nagan!

--Martxelinak:

Zu gauza ona baldin bazaude  
munduan ez da txarrikan,  
badirurizu gaur bertan irten  
zerala infernutikan;  
naiagatikan ez dezu entzungo  
nigatik baiezkorikan,  
etzait gustatzen zu bezelako  
mutilzar itxusirikan.

--Amerikanoak:

Ez al diozu begiratutzen  
nere poltsa diruari?  
Ortatik sobra dabilkigunak  
gauza daukagu ugari.  
Ez al dituzu ikusi izandu  
errian zenbat dendari  
jatekorikan eman nai ezik  
dirurik eztuenari?

--Martxelinak:

Orrelakorik eztet aditu  
jaiotzetik oraindaño,  
nere negarra zabalduko da  
Amerikatik auntzaño,  
zuk izan arren urre ta zillar  
zedorri estaltzeraño,  
nik naiago det neskezar bizi  
zurekin ezkondu baño.

Inazio Mitxelena "Artxabaleta"-ri Martxelinak botatako bertsoa (Oiarzungo plazan?) ere gogoratzen da:

Artxabaleta, mutil polita,  
gustatzen zitzaidan gaztetan;  
onta ezkerro igualtsu da  
esan eta're plazetan;  
nai dezunian juan zaitia,  
antxen bizi naiz Galtzatan.

"Hau leku aittorra" lanean, Martxelinak ere emakumeek bertsoan jasan behar izaten zituzten irainak jasan behar izan zituela dakar, Laxaro Eskuderoren bidez jakinda:

"Goizuetako Kaiku esaten ziotena aitzen zen kantari zerbatte -baño ez zen bersolaiya, e?-, ta harrek astokei batzuk esanak, gaizki esanak, puta bat izango balitz bezela, postura hortan. Ta [Martxelinak] geyo ez zela jongo esan 'men zun, plaza(ra), ta ez 'men zen jon geyo. Hoi 're aittu izan dut. Kaiku, ikazkin aitzen zen, ta herrira etortzen bazin beti mozkorrak, biño [bertsolari bezala] ez zun baliyo ezer."

(...)

"Joxe Miel Eskuderok zioenez, Martxelina ez zen tabernetara joaten, kantatzera, edozer gauza entzun

behar izaten baitzuen...!, baina "bersolai ona 'men zen, gue attack hala 'saten zun"."

Irudia: Txakur Gorria

Iturria:

[-Bertsozale Elkartea](#)

- Zavala, Antonio. "Oiartzungo beste lau bertsolari". Auspoa; 119.

[https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker\\_jagon\\_tegiak/auspoa/10682.pdf](https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/auspoa/10682.pdf) ]

- Mendizabal, Agustin. "Hau leku aitorra! : Oiartzun haraneko kanta eta bertso zahar bilduma berria".

Oiartzun: Udala, 2017.

